

opusdei.org

Kanonizazioaren oihartzuna nazioarteko iritzi publikoan

Nire aldaketa pekatu al da?
Ezagutu gabe epaitzea, oker bat
da; iritzi aldaketa, berriz
azertua

2004 Mai 6

Marco Tosatti kazetariak artikulu bat
argitaratu zuen 2001-XII-21ean
Turín-eko La Stampa-n, laburbilduz
Opus Deiri buruzko iritziak
jendearen artean izandako

bilakaera. Besteak beste, María del Carmen Tapia-ren testigantza zuen. Emakume honek, 1992an, behin eta berriro adierazi zuen dohatsuketaren aurka zegoela. Eta, orain, “Aita Santuaren erabakia goresten duela” adierazi du. ANSA agentziak, 2001-XII-24 egunean beste adierazpen batzuk zabaldu zituen. Eta, horietan, zera zioen Tapia-k bere iritzia argitzeko: "Escrivá monsinorearen zorioneko kanonizazioa, poztasun handikoa izan da niretzat; izan ere, hil zenez geroztik, mesedeak eskatu egin ohi dizkiot eta esan dezaket, benetan, sarritan eman izan dizkidala". Izan zuen iritziaren arrazoiak azalduz gero eta 1992an argitaratu zuen liburu batez mintzo zelarik, zera esan zuen amaitzeko: “oker bat, oker larri bat izango litzateke nire liburuan dagoen informazioaz baliatzea Opus Deiren fundatzailearen santutasuna zalantzan jartzeko”.

Erromako Il Messaggero-n (2002-X-7) kanonizazioaz geroztik egin zuen balantzean, Orazio Petrosillo-k hau baieztatu zuen "atzotik aurrera, Elizaren agintaritzak bereak egin ditu, giro profesional eta lana santutasunez egitekoetan, apostolutzaren linea estrategikoak. Juan Pablo II.ak gehitu egin dio berea duen irakaskuntzari, erarik argienean, apaiz espainiar huraren programa". Eta, aurrerago, zehaztu egiten du: "eguneroko gauzak, lana, lanbidea, bikaintasuna bilatuz egin behar dira, lanaren balioa ondo egitean dagoelako, gizon-emakumeak zerbitzatu eta Jainkoari eskaintzeko".

Badago iritzi publikoan datu adierazkor bat, azpimarratzekoa: kristau inspirazioko komunikabideek argitaratu duten informazioen kalitatea. Hona dakargu, interesgarria baita, John L. Allen-ek, Erroman Nazio Batuetako National Catholic Reporter-eko

korrespontsalak 2001-XI-9an sinaturiko artikulua. "Opus Dei: No surprise it gets top billing in this papacy". Allen-ek, beraren kazetari kideei zuzenduz, baieztatu zuen oker bat dela aurreiritziekin jarraitzea: "Opus Dei madarikatu beharrean, aurrelariak sakondu egin behar dute katolizismoaren funtsezko gaiez hark duen gogoeta teologikoa".

Azpimarratzekoak dira, baita ere, Annabel Miller-ek The Tablet-en 2001-XI-10 eta 17an egindako "Saints in the office" eta "Muscular Catholicism" bi kolaborazioak. Annabel Miller-ek, Opus Deiko kideak eta haren aurkako beste pertsonak elkarrizketatuz gero, zera ondorioztatu zuen: Josemaría Escrivá-ren mezua "it is not my cup of tea" da; baina, zenbait pertsonarentzat "kristau hobeagoak izateko bide bat bada, zergatik egin behar dut nik errealitate horren aurka?" (The Tablet, 2001-XI-1).

Alemaniar hizkuntzako zenbait jakintsuk mendeurrena ospatzea erabaki zuten. Eta Opus Deiren fundatzailearen bizitza eta irakaspenei buruzko testigantza eta gogoeten saio-bilduma bat argitaratuz egin ere, diziplinarteko gisara. Besteak beste, liburuan Koch monsinorea, Basilea-ko gotzainaren kolaborazio bat zegoen. Kazetari batek, berria jakitean, sentitu egin zuen gotzain eta, aldi berean, teologoaren jokaera. Kritikak aukera eman zion Koch monsinoreari, jendaurrean eta argiro, liburuan parte hartzeko izan zituen arazoak adierazteko. "Nire aldaketa pekatu al da?", Tages Anzeiger, 2002-I-30 haren artikuluan, Koch monsinoreak gogorarazi zuen 1992an jendaurrean adierazi zituela Josemaría Escrivá eta Opus Deiri buruzko aurkako iritziak. Garai hartan, zeharka baino ez zituen ezagutzen. Harrezkero, Josemaría Escrivá-ren testuak irakurri eta Opus Deiko kideekin

harreman zuzenak izan zituen.
Horiek direla bide, haren iritzia
aldatu eta, gaur egun, onespen betea
du geroko santuaganako. Hona Koch
monsinoaren azken ondorioa:
ezagutu gabe epaitzea, oker bat da;
iritziz aldatzea, berriz, azertua.

Hain zuzen ere, alor honetan sumatu
daiteke 2002. urteko pertzepzio
kolektiboen artean gailenetariko bat.
Marco Politi italiar kazetariak
sumatu du "denbora igaro ahala,
zenbait emozio baretu egin dira", La
Repubblica, 2002-I-10. Baieztapena
egin aurretik, elkarrizketa bat izan
zuen, mendeurrena zela-eta, Opus
Deiko Prelatuarekin.

Berriekin batera, artikulua
sakonagoak ere argitaratu dira,
kazetari espezializatuen eskutik,
Opus Deik eta berorren
fundatzaileak jendartean duen
oharpenaz. Bestalde, hona Henri
Tincq-ek "L'Opus Dei, l'avant-garde

de Dieu", Le Monde, 4-X-2002-X-4an
esaten duena: iraganeko
aurreiritziak gaindituz gero,
errazagoa da Opus Deirentzat "behar
den bezala jardunaz, fundatzailearen
deitari erantzutea: gizartea
berkristautzea, enpresaria, ikaslea,
etorkin gaztea, tradizio kristauaren
baloreak defendatzeko laguntzea,
haintzat eskainiz trebakuntzarako
bitartekoak, erretiroak, otoitzaldiak
eta debozioko jardunak".

Estilo berri baten adierazbide gisa
irakurri dute zenbaitek Eugenio
Scalfari-ren artikulu bat L'Espresso,
aldizkarian "Escrivá-ren mirariak eta
santuen fabrika", 2002-X-17. Eugenio
Scalfari, erromar La Repubblica
egunkariaren sortzailea da. Kazetari
beterano honek, San Pedro plazako
"ikuskitunaz" aldeko inpresioa
deskribatuz gero, iritzi pertsonala
adierazi du kanonizaziorako
arrazoiei buruz: "Guk, laikook
(kurtsibaz idatzi da hitz honek

Italian, ohiko hizkeran, duen ñabardura adierazteko, zeren batzuetan “katoliko” hitzaren aurkakotzat erabiltzen baita) ez ditugu sinesten, ez miraritan, ezta naturaz gaindiko inolako interbentziotan ere, ez gorputzetan, ezta arimetan ere, edozein bada ere hitz honi eman nahi diezaiokeen zentzua. Zeren, horrela ezean, zein laiko izango ginateke? Baina guzti hori sinesten dutenak errespetatu egiten ditugu". Eta, aurrerago, jarraipena: "Josemaría Escrivá gizon santu bat izan dela, Aita Pío izan den bezala (...), ez da gure artean eztabaidatzen. Gizon santu bat, eta chapeau: berorren gisako asko baleude, hobe". Antzeko zerbait, back ground desberdin batetik, idatzia zuen Joan Estruch-ek, 9-I-2002-I-9an en Avui-n (Bartzelona) argitaraturiko artikuluan. Kanonizazio laster izatekoaren berria komentatzean, zera baieztatu zuen Estruch-ek: Aita Santuaren

erabakia ezin du kritikatu mirarrietan
sinesten ez duenak.

Juan Manuel Mora. "Cuadernos
del Centro de Documentación y
Estudios Josemaría Escrivá de
Balaguer" 2003

.....

pdf | document generated
automatically from [https://opusdei.org/
eu-es/article/kanonizazioaren-
oihartzuna-nazioarteko-iritzi-
publikoan/](https://opusdei.org/eu-es/article/kanonizazioaren-oihartzuna-nazioarteko-iritzi-publikoan/) (2025 Mar 28)